



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2026/05/22

ALKATETZAREN EBAZPENA

Lesakako alkateak ebazpen hau onartu du:

“MAGALA HAUR ESKOLA - 2026-2027 IKASTURTERAKO ONARTUTAKO UMEEN BEHIN BETIKO ZERRENDAREN ONESPENA. 270944M ESPEDIENTEA.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 22ko 6/2026 Ebazpenaren I. eranskinean jasotakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2026-2027 ikasturterako funts publikoekin sostengatutako haurrak onartzeko prozesua onartzen da.

Behin-behineko zerrendak jendaurrean jartzearekin batera, berariaz adieraziko da erreklamazioak, zuzenketak edo uko egiteak egin daitezkeela 2026ko maiatzaren 6tik 12ra bitartean, bi egun horiek barne.

Epe hori pasa denez, Lesakako Magala haur eskolako 2026-2027 ikasturterako onartutakoen behin betiko zerrenda onartu behar da.

Hori kontuan hartuta, honako hau EBATZI DUT:

- 1.) Lesakako Magala haur eskolako 2026-2027 ikasturterako onartutakoen behin betiko zerrenda onartzea, espedienteen jasota dagoen moduan.
- 2.) Ebazpen hau Udaleko web gunean argitaratzea.”



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka
MARIA JOSE LARRYOZ ARIZTEGUI
2026/05/22

